

Krisiak gazteak larriki kolpatzen ditu. Enpleguko azken datuek erakusten duten moduan langabeziak gora egin du gazteen artean, %5 hain zuzen ere. Hori horrela, Adegiko presidente Pello Gibelalde egin berri dituen adierazpenak ezin dira larriagoak izan. Honelako adierazpenen aurrean LAB sindikatuak ezin du beste alde batera begiratu. Horregatik gaur Gibelalde jaunaren dimisioa eskatu eta ekimen berriak iragarri ditugu. Datorren ostegunean Adegiren aurrean mobilizatuko gara.

Ainhoa Etxaide, LABeko idazkari Nagusiak, izan du Adegik ostiralean egin zituen adierazpenen aurrean sindikatuaren iritzia emateko ardura. Hasteko gogorarazi du langabezi datuak atera berrikan Adegik bere irakurketa plazaratu zuela eta hauetan, ohiko moduan, “ez dagoela tarterik ez pobrezia ez prekarietatearentzat, ez langileriaren egoera larriarentzat”. Are gehiago, gazteek bizi duten egoera buruzko galdera egiten zaionean “Adegik bere benetako aurpegia erakusten du eta bere politikak zein diren agerian geratzen dira”.

Honen aurrean argi eta garbi utzi du adierazpen hauek “onartezinak” direla. Gibelalderen estiloa eta politika langileak iraintzea eta pobrezia eta prekarietatearen ardura gure gain jartzea da. Gipuzkoan arazoa langileak gara, langileak eta gure eskubideak. Langileak eta langileon ordezkariak garen sindikatuak. Beraz “ez gaude bakarrik aho bero baten aurrean, hau da Adegiren jarrera, eta hitz hauen atzean politika zehatz bat dago”.

Horrez gain Etxaidek “Adegik diskurtso hau babes instituzionala duelako egin dezakela” zehaztu du. Instituzio eta gobernuen aldetik horrelako jarrera salatuak izango balira patronalak ez luke bere burua hain sendo ikusiko eta hori behin eta berriro ikusi dugu Gipuzkoan.

“Hau ez da irain bat soilik gazteei begira, hau iraingarria da langabezia dauden familia guztientzat” gehitu du LABeko Idazkari Nagusiak. Iraila amaieran Hego Euskal Herrian 197.000 pertsona zeuden langabezia eta enplegu zerbitzu publikoetan izena emanda; eta erdia baino gehiago (%54,5) emakumezkoak dira. Langabezia daudenen erdiak baina gehiagok ez dauka inongo babesik. “Gibelalde jaunak benetan uste du etxe horietan gazteei dena ematen zaiela eta eroso bizi direla?” galdera jarri du mahai gainean. Iraingarria da hilabete bukaerara ezin iritsi ibiltzen diren guzti horiekiko.

Iniziatiba zehatzak

Ez gaude horrelako gauzak normalak direla onartzeko prest, eta ondorioz sindikatuak hainbat erabaki hartu ditu. Ezer baino lehen Gibelalderen dimisioa eskatzen du LABek. Horrez gain, sindikatuak patronalarekiko hartu ditugun erabakiak berresten ditugu eta “horrelako adierazpenak egiten jarraitzen duten bitartean harremanak ezingo direla normalizatu” azpimarratu du Etxaidek. Zentzu honetan bertan behera geratzen da Adegirekin egin beharreko zen bilera. Era berean urriaren 15ean Confedebekin hitzartutako bilera ere bertan behera geratuko litzateke adierazpen hauen aurrean ezer esan ezean.

Instituzioei dagokionean, Batzar Nagusietan Gibelalderen hitzak gaitzetsiak izan daitezela eskatuko du sindikatuak. Etxaidek eskaera zuzena egin die: “Esan dezatela Gipuzkoako

instituzioak ea hitz hauek benetan onargarriak diren eta zer egingo duten honelako adierazpenen aurrean". Eskaera formal bat egingo dio LABek ere Enplegu sailburuari bere jarrera azaldu dezan.

Amaitzeko mobilizatu egingo gara eta hitzordua jarrita dago. Datorren ostegunean Adegiren aurrean salaketa ekimen bat egingo dugu Ernai gazte altolakundearekin batera. Gazteek Euskal Herrian etorkizuna izatea merezi dute eta hori posible da beste norabide bat hartzen bada. LABek ez du amore emango saiakera horretan.

—
“Nuestros jóvenes viven una vida muy cómoda, en unas familias en las que les damos de todo. No tienen hambre y tienen lo suficiente como para no hacer esfuerzos. El primer problema lo tenemos en nuestras casas, no echemos las culpas a los demás

Tenemos problemas para enviar gente valida a China o India para 3 o 4 años y luego nos quejamos de que aquí no tenemos cabida. La única suerte que tenemos es cuando se casan con chicos del propio país, que ya no les preocupa venir. Y dicho sea de paso, en esos países hay chicas monísmas. Y chicos también”

(Pello Guibelalde, Presidente de ADEGI)